



Zabalera

etxebizitza

Aldacrak:

Ahazkoa:



43° 10' 44"

2° 35' 45"

Berri Iruditan / J.A. Ramos

Andikoa inguruan XX. mendearen azken laurdenean eraiki ziren txaleten artean, honako hau dugu. Gertu duen *Bilbatuazpikoa* (**Ikus Bilbatuazpikoa**) baserriaren lurretan eraikia.

1986an egindako etxea da, neurri ederrekoa. Elkarren ondoan dauden bi bolumenek osatzen dute, bata L formakoa da, hiru isurkiko teila-

tuarekin, eta bestea, bolumen luzekoa. Lehena harrizko zokalo baten gainean altxatzen da, eta fatxadak pintatuta ditu, leihoen pertsiana ilunekin kontrastea eginez. Efektu bera lortzen da bestean, baina isurki biko teilatua daukanez, frontoian egurrezko egitura imitatu zen.

toponimia

Zabal hitzak adiera antzeko baina desberdinak ditu, toponimian arruntenak "handia" eta "laua" dira. Kasu honetan dugun eta atzizkiak ere esanahi bi ditu, leku adierazlea edo ugaritasuna. Beraz Laua edo Lauak moduan uler dezakegu izen hau.